



## Basoak ernatzen

*Baso astea antolatu zuen Urkipe eskola.  
Agenda 30 helburuekin bat eginez.  
Ekitaldi ezberdinak egin zituzten.*



**M**artxoaren 18an, egunero bezala, eskolan egunean zehar jasotako materia organikoa botatzera joan ziren 5 eta 6 urteko haurrak. Ikasturte honetan, COVID-19a dela eta, haiek hartu dute organikoa botatzeko erantzukizuna. Ardura eta kontzientzia handiz egiten duten lana da.

Hala ere, egun horretan, beste eginbehar bat ere izan genuen. Bi haritz landare landatu genituen eskolako baratzearen inguruan. Helburua da basoak ekosistema moduan duen garrantzia aldarrikatzea, eta, horrekin, herritarrak ohartaraztea basoak, ematen duten zerbitzu ekosistemikoari esker, ezinbestekoak direla gizakien biziraupenerako eta ongizaterako.

Etxeko txikiek ikusiko dute zuhaitz landare horien hazte prozesua, eta, dena ondo badoa, eskola berriaren zelaietan landatzeko asmoa dugu.

Ekitaldia Basoak ernatzen proiektuaren «ale txiki bat da», eta basoaren garrantzia eskola komunitatera zabaldu nahi du.

Martxoaren 21ean izan zen Basoen Nazioarteko Eguna aitzakia hartuta, 15etik 18ra bitartean Basoaren Astea egin zen. Horren barruan egin zen landaketa sinboliko hori. Gipuzkoako beste 50 ikastetxerekin batera parte hartu du Urkipe Herri Eskolak, Agenda 2030eko 15. helburuarekin bat etorritz. ■



Financiado por  
la Unión Europea  
NextGenerationEU



Plan de  
Recuperación,  
Transformación  
y Resiliencia

ELISKO JAURLARITZA  
INDUSTRIA, TRANTZIO  
ETA JASANGARRITASUN SAILA



GOBIERNO VASCO  
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y  
SOSTENIBILIDAD